

XABIER AMURIZAREN KULTURA-EKARPENA

Oraingo zurrunbiloan murgildurik, hedabideek eta teknologia berriek hara eta hona erabiliak izanik, geure nortasuna eta esentzia galtzeko zorian ez ote ginen galdetzen nion neure buruari; geurez husturik eta inoren haizetan ez ote garen ibiliko. Sentimendu horien harian olerki bat idatzi nuen eta hango ahapaldi batek hau dio:

*Neure esentziaren bila
nenbilen ni arretatsu,
itsu-itsuan setatsu...
Entzun dut abots isila,
ariman entzuten dena
apalki eta suabe:
“izan zeure burujabe
baina eskertu inorena;
elkarri gatzaizkio zor,
zordun ez denik ez da inor”.¹*

Aspaldidanik eskura izan ohi dut Xabier Amurizaren *Hiztegi Errimatua*, liburu argi eta praktikoa. Lagungarri eta gida izan dut metrikadun olerkietan nahiz bertso jarrietan. 2015ean, 75 urte bete berri bertsotako plazak uztea erabaki zuenean,

¹ Karmel 2016-4 (118. or.).



hainbat omenaldi jaso zituen han eta hemen. Miren alaba alboan kantari zuela egin zuen Altzon azken bertso-saioa 2016ko apirilaren 29an. Herri txiki batean omenaldi handia eta agur hunkigarria, bertsozaleek, protagonistak eta honen familiak nekez ahaztuko dutena. Urte berean baina hainbat hil geroago, azaroaren 26an, Muxikako “Atxelipe Elkartean” egin ziotena dut gogoan, bertan izan nintzelako. Hango lagunen artean zabaldu zen papereko koplato batek, bera argazki batean baratzeko fruitu artean irribarrez agertzen zela, honela zioen:

*Bai Xabier, bai Xabier;
ein dok bai hamaika biher.*

*Argazkiak argi dino:
Oin frutuak batu biher.*

Bertsozaleon izenean, ESKERRIK ASKO

2016. urtean komunikabideetan sarri agertzen zen eta aitorpenak eta omenaldiak bata bestearen ondorik zetozen; ez zen harritzekoa, halako batek erretiroa hartzen duenean sumatzen baita plazetan utziko duen hutsunea. Ni ere bultzatu ninduten hartaz zerbait idaztera. Ez nuen baietzik esan, beste zeregin batzuk nituelako, baina neure barruan baietzean nengoen eta zorrean ikusten nuen neure burua. Gaur arte luzatu zait... Dena dela, haren kultura-iturri ezin agortuzkotik harturiko ur pitin bat baizik ez da izango hemen agertzen dudana: oroipe-nak alde batetik eta haren obraz gogoeta xumea bestetik.

Umetako kontuak

Hona neure oroipenen kutxatik atera ditudan orduko gauzatxo batzuk: 1952-1953ko ikasturtea laster hasiko zen. Nik urtebete neraman Zornotzako karmeldarren ikastetxean eta bigarren maila hasteko nengoen. Oporraldia etxean igaro ondoren ikastetxera itzulirik, pozik hartzen genituen geratzen ziren opor hondar haiek hara eta hona joateko, ibilalditxoak egiteko. Autzaganerantz gindoazen umeok artalde baten antzera geure artzain edo jagolearekin, A. Eliseorekin; gu gorantz eta andre bat beherantz, astotxo bat mantso-mantso sokatik zekarrela. “Gaurtik aurrera lagun barri bat izango do-zue” esan zigun. Xabier Amurizaren ama zen eta haren fraidegaitzako arria zekarren astotxoak otzaretan: maleta handi bat eta gainerakoak.

Zornotzan Euskal Herriko bazter askotako mutikoak geunden Karmeldarretan. Jolas, ikasketa eta errezo artean familia handi bat bezalakoa zen gure ikastetxea. Adin hartan -11-12 urte- maitasun behar handia genuen eta, erraz egin ohi ginen lagun elkarrekin. Xabier mutikoa ere bildu zitzaigun. Ume isila, ona eta buruz argi-argia; lagunuen aldetik miretsia eta irakasleen aldetik oso estimatua zela sumatzen genuen. Orduko ume euskaldunen gaztelania trakets antzekoan: “A

Amuriza le tienen kolko” esaten zen eta beste batzuei buruz ere gauza bera, norbait irakasleen aldetik ongi ikusia eta begiko zela adierazteko. Ez zuen horrek inolako konnotazio txarrik, baina halako onarpenik ez genuenongan zelotxoa bai pizten zen..., eta ikasketetan eta portaeran hala-holakoak ginenok, kiroleetan edo beste zer edo zertan erakutsi nahi izaten genuen geure zera eta lekutxo bat egin lagunen eta irakasleen estimazioan.

Hilean behin ikasketetako emaitzak, notak, ematen zizkiguten, eta ikasketa-aretoan guztien aurrean irakurri. Izena esatean zutitu egiten ginen. Xabierren txanda iristen zenean nota itzelak, 9tik gorakoak ia guztiak.

Gabonetan ez ginen etxera joaten eta gure zuzendari eta zaintzaileak oporraldi labur hura guretzat albait atseginena izan zedin saiatzen ziren: jolasak, antzerkiak, kantak, bertsoak. Bertsoak ere bai? Bai, hango nagusiek bazekiten mu-



*Zornotzako ikastetxean, Karmelo Cedrun, Mauri eta Maguregi,
Markaida Atleticeko futbolariak irakasle eta umeekin*

tiko batek bertsoak kantatzen zituen eta erdira atera eta erakustaldia eman zezala nahi zuten. Mutiko hura Xabier Amuriza zen eta Fermin Juaristi azkoitiarra izan zuen lagun. Fermin Juaristi hau gu baino pixka bat zaharragoa zen, kirolari ona, futbolearen nahiz pilotaren punta-puntan ibiltzen zena; ikastetxetik irten ondoren pilotari profesionala izan zen, atzelaria. Sekulako arrakasta izan zuten, batez ere Amurizak; azkoitiarra apalago, baina tira, Etxanokoaren itzalpean pixka bat kantatzeko bazen gai eta ez da gutxi. Hori batez ere Gabon afalondoan izan zen eta uste dut beste afalondo batean edo gehiagotan errepikatu zela. Lehendik miretsia bazen, handik aurrera gure izar bihurtu zen.

Xabierrek urtebete egin zuen soilik Zornotzako Karmeldarren ikastetxean, elizbarrutiko apaizgai izateko Derioko seminariora aldatu baitzituzten bera eta Jose Luis Aresti bigarren maila amaitu zuen beste etxanotarra. Hala ere, hain denbora laburrean izateko, lorratz sendoa utzi zuen. Ez dakit zer sentimendu geratuko zitzaion berari. Uste dut guztiz onartua eta maitatua izan zela han. Nik orduko oroipenak ditut baina ia konturatu gabe eta berez-berez pasatzen ditut oraingo logikaren bahetik. Franco diktadorea zegoen Espainian agintzen eta gure ikasketak ere erdaraz ziren gehienbat; latinari astean ordu asko ematen genizkion eta frantses ere ikasten genuen pixka bat; euskaldunok astean ordubete izaten genuen euskara lantzeko eta kristau-ikasbiderako beste ordubete; hau ere euskaldunok euskaraz eta erdaldunek gaztelaniaz.

Gure irakasleetako batzuk gerrateko eta gerra osteko errepresioa beren buruetan ez bazen beren belaunaldiko hurbileko askorengan ikusiak ziren.

Ikastetxeko bikarioa, A. Julio Ibarra zeanuritarra, Txileko Chuchuncon urte batzuk egina zen, Chuchunco-ko zozo zuriaz ("Tordo Blanco") hitz egiten zigun umeoi eta gu pozik, fantasiatzeko beste mundu bat ekartzen zigun gogora. Zuzenda-

ria, A. Fidel Sarriegi azkoitiarra, geroago Begoñan gure teologiako irakasle eta ondoren Probintzial izango zena. Zuzendariordea, A. Eliseo Lejartza zeanuritarra, umeon artean zebilen egun osoan; musikako irakaslea zen eta ikastetxeko tipleen koruaren zuzendaria; gure kirolak eta futbol taldeak eta partidak antolatzen zituen; saltsa guztietan sartzen zena, beti guri agiraka eta haserreka eta beti gure lagun zena. A. Plazido Asotobiza zornotzarra, Euba auzokoa oker ez banago, herrena zen, onean ona baina txarrean pixka bat haserrekorra; geure frantseseko irakaslea genuen, ez zen Espainiako agintarien begikoa eta arriskuari ihes egitearren Frantzian egona zen aldi batean, geroago Perun igaro zituen hainbat urte eta 1952an etorri zen Zornotzako ikastetxera. Izendatu ditudan hauek euskaltzaleak ziren; A. Plazido noizean behin gure patrioko giro txiliotsu hartara hurbiltzen zen eta euskara galtzeko zorian edo ezbaian zen Ultzama eta Nafarroako beste herri batzuetako mutikoei euskara entzuten zienean, kolkotik karameluak atera eta oparixtoa egiten zien. Ez gure garaian, baina bai geroago, jakin dudanez. Beste euskaldun batzuk ere baziren, esaterako, A. Severino Agirrebeitia Berrizko Andikoa auzoko semea, Kolonbiako Uraban misiolari eta prefektu apostoliko izana, historialaria eta hainbat liburu idatzi zituen; A. Pedro Maria (Julian Duñabeitia) Garaikoa, organista ona eta gure latineko irakaslea, A. Severinoren iloba; A. Eufrazio (Domingo Ibargutxi) Ubidekoa; hau Jose Mari Maguregi atletiko jokalaria mitikoaren lehengusua zen eta bi aldiz edo ekarri zituen umeongana jokalaria haietako batzuk: Karmelo Cedrun atezaina, Mauri, Maguregi eta Markaida ditut gogoan. Oraindik gordezten ditut orduan eginiko argazki batzuk. Beste bost irakasle zeuden euskal hiztunak ez zirenak: A. Joakim Maria Guibert iruinxemea, A. Bizente Nafarroako Iguzkitzakoa, A. Florentzio Corellakoa, A. Bonifazio Arabako Zuazakoa eta A. Ismael (Juan Cruz Apodaka) Arabako Aloriakoa. Anaia laikoak hauek dira gogoan ditudanak: An. Zirilo trazatzailea

Bergarako Angiozar auzokoa, Zornotzako gure ikastetxeko eraikina diseinatu eta obrak zuzendu zituen; An. Doroteo Larrañabetzukoa; An. Jose Frantzisko "Axola" Markina-Xemeingoa; An. Anjel Maria azkoitiarra; eta An. Anjel (Capetillo Vizcaya) santurtziarra. Hau gerratean gudarien kapitain izana zen eta urtean behin Bizkargira edo halako mendietara joaten gine-nean gurekin etortzen zen eta behin baino gehiagotan azaldu zigun gudariei nola dei egiten zien mendian.

Xabier Amurizak Zornotzako karmeldarretan igaro zuenaldi laburraren berri ematean, bide batez, orduan han zen ingurumaria eta ondoan izan genituen pertsonak agertu nahi izan ditut eta Espainiako diktadura gori-gori zegoenean, han gure kulturak eta hizkuntzak gutxieneko onarpen bat behintzat bazutela aitortu eta azpimarratu. Ondorengo urteak Nafarroako Erriberako Villafrancan, Alesbesen, igaro genituen eta han beste gauza bat izan zen, euskaraz hitz egiteko debekuak eta etorri baitziren. Baina Xabier ordurako Derioko seminarioan zen. Xabierrek gaitasun handia erakusten zuen ikasketetan eta Etxanoko parrokoak edo haren eraginez aldatu zutela Derioko seminaria, zabaldu zen gure artean.

Harrezkero ia apaiz egin arte ez genuen haren berririk izan. Teologian geundela, A. Fidel Sarriegi Zornotzan ikastetxeko zuzendari izan zena orain teologiako irakasle zen Begoñako Karmelon eta hilean behin-edo Derioko seminaria joaten zen apaizgai gazteen aitortzak entzutera. Hark esan zion gure ikaskide bati, Xabier Amuriza euskaltzale eta bertsozale handi eгина zegoela. Ez ginen harritu, ume-umetatik bide hori ongi markaturik zuela ikusten baikenuen.

Bertsolaria

Xabierren bidea ez da sinplea ez bakarra, adar eta zidor ugari dituen baizik. Ez da bertsolaria soilik; gauza asko da, oro har intelektuala, buru-langile nekaezin eta sortzailea,

pentsalaria, poeta, idazlea, itzultzailea, kantaria, irakaslea, apaiza ere izan da... Baina bere bizitzako bide nagusia, errege-bidea bertsolaritza da; hala ageri da behintzat gure begietan. Ez dakit nola ikusiko duen berak bere burua, batez ere hemendik aurrera plazetan kantatzeari utzi ondoren. Bertsolari izendatu zuten umetatik; bide hura markatu zioten, *hemendik ibili behar duk* esan baliote bezala, baina berak ere egingo zituen merituak horretarako.

*Ez haut buruan erabiliko
baizik zintzilik iltzean
iltzea berriz josiko diat
nik dakidan bihotzean
bizi naizela biontzat eta
berarentzat ni hiltzean.*

ENAZ BANAZ liburuaren hasieran, eskaintza gisa, datozen hitzak. Donostian 1980an Euskal Herriko Txapelketa nagusian lehenengoz txapela lortu ondoren, txapelari hika hitz eginez



kantaturiko agurretik hartua da testua, baina pixka bat laburtua. Euskal Herriko hurrengo txapela ere (1982koa) berak lortuko zuen. Bietan ere buruz burukoan bi muxikar izan zituen lehiakide: lehenengoan Jon Enbeita eta bigarreanean Jon Lopategi. Dena dela, gailur horretara iritsi arte bide malkartsu, bihurri eta latzak gairatu behar izan zituen. Jar gaitezen umetan eman zituen urrats batzuei begira:

Bizkaierazko esaera hau datorkit une honetan gogora: “Umearen zentzuna, etxean entzuna”. Askotan entzun izan diogu aita, Luzio Torreburuko, umoretsua eta bertsozalea zela eta etengabe aritzen zela kantari. Geneetatik ez eze, aitarren ohitura eta jarduera hartatik jasoko zuen Xabier umeak kanturako sena, gogoia. Dena dela, gauza bat da behizain edo beste zereginen batean ari zela bertso-kantari gozatzea, atseginez eta berez-berez aita imitatzen jardutea, eta beste bat ume-umetan jende aurrean bertsoak asmatu eta kantatu beharrez trantze larriak igarotzea. Hau da, umea jolasean da pozik edota beste edozein jarduera jolas antzera har dezakeenean; ez gehiegi estutzen duen behar edo zeregin bat gainean ezartzen zaionean. Horrek ez du esan nahi umea bertan gozo, ezertan behartu gabe utzi behar denik, baina bere neurritxoan izan beharko beti ere. Beraren adierazpen batzuetatik ateratzen dugu une batzuetan zama bihurtu zitzaioela bere gustuko jolasa zena, bertso eta koplak kantatzea. Esaterako, Bizkargiko jaitik etxeranzkoan, Autzaganekeo tabernan zazpi urterekin bertsoa kanta zezan mostradore gainera altxatu zutenean, edota gorago aipatu dugun hartan, Karmeldarretan Gabonetan Fermin Juaristi azkoitiarrarekin kantatu behar izan zuenean. “Entrenamendu” gogorregiak ume batentzat...? Dena dela, mostradore gaineko hura geroko oholtza gaineko saioen aurrekari eta lehen aldarria izango zuen bertsolaritzan.

Bestela oso pozik jarduten zuen kantuan: *Nire umetako lan nagusia behi-zaintza zen. Eskolatik etorri, askaldu eta,*

erbia baino behi zorrotzagoak aurrean hartuta, basorik baso joango nintzen, txakurra lagun nebala. Nire denporapasa nagusietako bat nekizen bertso eta kanta klase guztiak kantatzea izango zen, batzutan repertorio osoa errepikatuz, denpora sobratzen baitzen. Ez neban edozelan kantatuko, ahalik ozenen baino. Orduan beti gertatzen ziren mendian (...), nik ikusi ez arren, entzuten ninduenak. (...) Inoz arbola puntatik kantatuko neban, ez hainbeste txoriak imitatzearren, argiago eta urrinagotik entzun zekidan baino. “Ño! Torreburuko mutikoak jjekok samie!”, pentsetan neban esango ebela.

Gaztetako eta apaiz zeneko bertso-ibilerak

Bai, umetan markatu zioten bidea, baina bide hori ez zegoen batere garbi oraindik; laharrek moztu beharra izango zuen, eragozten zuten hainbat zoztor eta langa gainditu beharra. Tradizioaren zidorretik, baina bere kasa eta autodidakta gisa egin beharko zuen aurrera. Hitz batez esateko, ekandu



Xabier Amuriza Abel Muniategigaz, Zornotzako Bernan, 1965 inguruan, oraindino sotana eta guzti

eta hartarako bere burua prestatu eta trebatu. Berezkoaren eta ikastearen kontu zaharraz pixka bat geroago jardungo dugu.

Derioko seminarioko erdal giroan, hango diziplina zorrotzaren ingurumarian, txarrean ere gauza on bat ateratzen du: umetatik ezarri zioten “bertsolari-tituluaz” inor ez gogoratzea. Harrezkero ez zion inork esango umearen gogoia trantze es-tuan jarriko zuen “botaik bertso bat!”...

Gaztetan musikak liluratu zuen, piano eta organo-jotzaile izateaz amets egiten zuen; pianoren bat libre aurkituz gero, hura gozamen! Bere hatzak, baina, nahiko trakets sumatzen zituen, esku-pilotan baldaturik-edo, ez zioten buruko sen eta garrari erantzuten. Eta umetako bertso eta kanta haiek zer? Harra barruan zuen eta edozein unetan azalera zitekeen. Kar-melo Etxenagusiak euskarazko eskolak ematen zizkien astero eta halako ikastaldi baterako bertsoak jarri eta kantatzea otu zitzaion. Piztu zen berriro bertsoen sua eta haren garra nekez itzaliko zen. Erdal giro, diziplina eta molde estu itogarri haren azpian ere gauzak mugitzen eta kontzientziak esnatzen hasi ziren.

Teologiako ikasle-lagun eta batez be irakasle-nagusien au- rrean, bertso batzuk kantatzera oholtzarantz ninoala, euskal nortasunaren desafio guztia neroan kontzientzian. (...) Oholtzako laubost mailak igoten nibarduela, atzetik nonor so- matu neban. Abel Muniategi zen: –Hik zer ein biok? –itaundu neutson goian. –Bertsuek kantau –erantzun eban. –Neu be horretantxe nadjjatok, ba! –Alkarregaz kantauko jjuau.

Ha bere mabaira eta ni neurera banandu ginenean, zurtz eginda jesarri nintzen. Jantokitik urtekeran itxaron neutson eta, pasilu luzean zehar tropelean ginoazela, esan neutson: –Gu zelan bixi ixen gozak alkarren ondoan, alkarren barri gaur arte jakin barik? –Etxakijjat. Oin bajjakijjeuk. –Zegaittik etxuk alkarregaz zozer eitten? –Ni bertso-tako animosua na- jjauk errezurako baiño.



Afal ostean jolasaldia zuten eta astialdi polita elkarrekin kontuak esan, asaskatu eta seminario ingurutik atzera eta aurrera ibiltzeko. Kontzientzi azterketa zen azken otoitzaldia, gaueko 11etan isiltasun osoan nor bere gelara bildu arte. Astialdi hura hautatu zuen gure bertsolari-bikoteak trebatze-saioak egiteko. Seminarioko soto amaigabeetako gelaren bat begiz jo zuten eta hantxe ezarri bertso-eskola klandestinoak; biak buruz buru jo eta su gaueko orduetan: *ez genduen prisa-rik hartzen erretiratzeko. Gauerdia, ordu bata, ordu biak...*

Behin San Joanak bazetozen eta Abeli esan zion: *–Zegaittik etxuk San Joan egunien Bedian kantetan? –Nigaitxik bai. Hala-lantxe egin genduen. Oporretan ginoazen, ha betiko, ni itzul-tzeko, baina joan ginoazen, sorbaldak maletaz eta gogoa po-zez kargaturik.*

Uda hartan Etxanoko Andre Marietan ere biek kantatu zuten. Apaiz egin ondoren, urtean zehar eginiko plazak ez zirela hogeita hamarretik gora izango dio berak. Jakina, bertsotarako egunak jaiegunak izan ohi ziren gehienbat, eta apaiz zeregin eta elizkizunak lotura eta muga gertatu behar ezinbestean. Baina aukerak ere agertzen zitzaizkion biak egiteko: elizakoa eta plazakoa.

Gogoan dut Pilareko Andre Mari egunean Markina-Xemeingo karmeldarretan bertsolari-eguna egiten zela. Diktadura gogorrean ezin zen bildu halako jendetzarik eta gutxiago gobernuak hain begitan harturik eta zelatapean zuen bertsolari mordorik. A. Migel Maria Juaristik, ZERUTXU Ikastolaren fundatzailea ere bazenak, hasieran Joan Ibarzabal “Buztarri”, Jon Azpillaga, Joan Mugartegi eta inguruko bertsolari batzuk lagun zituela, urriaren 12a hautatu zuen horretarako. Zergatik egun hori? Guardia zibilek egun horretan beren jai handia ospatzen zutelako. Enbeitatarrak, Deunoro Sardui etab. ere jai horretara hutsik egiten ez zutenak ziren eta azken urteetan antolaketa ere beraiek arduratzen ziren. Bada, jo dezagun berriro Xabier Amurizagana. Urte batean bera izan zen bertsolariei hitzaldia egin ziena. Egitaraua urtero berdintsua izan ohi zen. Lehenengo jendea bildu eta meza ematen zen hildako bertsolarien alde, horren ondoren eliza ondoko aretoan hitzaldia bertsolaritzaz edo haien intereseko gaien batez eta azkenik, bazkaria bertso ugariz gozatua arratsalde erdira arte. Xabier lehenengo aldiz etorri zenean, ni neu ere hemen nintzen eta A. Migel Mariak, komentu honetako priore zenak, niri agindu zidan mezako hitzaldia. Xabierrek eta biok egin genituen geure hitzaldiak: nik mezakoa, homilia, eta hark gerokoa, bertsolaritzazkoa.

Geroago, beste urte batean ere etorri zen Xabier Pilareko eguneko bertsolari-bilerara. Ordurako Apaizen “Gogor” mugimendua bizi-bizi zegoen eta bera kartzelan egonaldi bat, ez luzea, egin berria zen. Berandu sartu zen, besteak bazkaltzen

ari zirela. Hain zuzen ere, urte hartan Teodoro Hernandorenak izan zuen hitzaldia eta Xalbador eta Matxin eta uste dut Xanpun eta Ezponda ere ekarri zituela Iparraldetik. Bertsotan hasi zirenean, Azpilagak eta berak (Amurizak) saio bizi-bizi eta polita egin zuten zortziko handian, doinua ere gogoan geratu zitzaidan, bertsoak ez tamalez. Hauek grabaturik izan nituen luzaro, baina zinta hondatu zitzaidan eta dena galdu. Uste dut Xalbadorrek ere atseginez entzun zituela Amurizaren bertsoak, artean ez baitzuen ezagutzen bertsolari gisa. Kartzelak bertsotarako on egingo ziola adierazi zuen bertso batean; haria honela zen: *mendiko barkaitz artean ongi / etorri obi da ezpela // bertso-lanean zailtzeko ere / ona daiteke kartzela.*



Egun horretan elkar ezaguturik, konfiantza hartu zuen A. Migel Mariarekin. Berak *ENAZ BANAZ* liburuan baditu pasarte batzuk hartaz. Gorago aipatu dugu apaiz-lanak loturak eta mugak ezartzen zizkiola bertsotan egitera hara eta hona joateko. Behin, Karmen eguna igandez gertatu zen, eta itsas herri askotan jai egiten dute; bazuen hark konpromisoren bat nonbait eta gure prioreak, A. Migel Mariak, ni bidali ninduen Gizaburuagara haren ordeiz igandeko meza ematera.

Apaiz gazte zela, Gizaburuaga eta Amoroto zituen bere ardurapean. Urte haietan apaiz eta erlijiosoen bileretan bertso jarriak ere kantatu ohi zituen eta gogoz entzuten genituen, esaterako, txepetxaren eta kukuaren bertsoak. Zapaltzailearen eta zapalduaren alegoria dago hor, Espainiari eta Euskal Herriari hurrenez hurren aplikatu dakiokeena eta asmo horrekin jarriak izango ziren, ezbairik gabe. Beste batzuetan batbatekoak kantatzen zituen, eta bertso-kontuetan antolatzaile eta epai-mahaiko ere izan zen. Ziur dakigu 1967ko Euskal Herriko txapelketa nagusian epaile izan zela, Xalbadorri Anoetan txistua jo zioteneko final gogoangarrian. Ez dakit ziur baina 1966ko urriaren 30ean Durangon izan zen Bizkaiko finalean ere epaile izan zela uste dut. Jon Lopategik irabazi zuen Bizkaiko txapela Jon Mugartegi berriatuarrarekin buruz burukoa jokatu ostean; Andre Maria elizpean izan zen arratsaldeko saioa, bertsoaren lau errimak egiteko moduko lau deitura; hala adierazi zuen Alfontso Irigoienek haien aurkezpena egiterakoan: Muniategi, Arregi, Mugartegi, Lopategi. Goizeko saioan Abel Muniategik eta Jose Mari Arregik, batak agnostikoaren paperean eta besteak sinestunarenean saio bizi eta interesgarria izan zuten, bakoitzak bere arrazoi-bidea sendotzearen, San Ignazio aipatzen zela. Orduko aldizkari batean, ez dakit *Zeruko Argia* ala *Anaitasuna* izango zen, iruzkin labur bat idatzi zuen Xabier Amurizak horretaz.

Zamorako kartzelan sartu zituzten hainbat apaiz; urteetarako sartu ere. Guztirako astia sobera zuten eta Xabier Amuri-

zarena ez zen besoak gurutzaturik bertan gozo eta egonean geldi ezer egin gabe egotea. Burmuinak etengabe lanean zitzen; haren errotak irin ona, gehienetan bertsozkoa, eho eta eho ziharduen. Han egin zituen itzulpenak, eleberriren bat, olerkiak, bertso jarriak, eta batez ere hiztegi errimatua... Han bete zuen bere barneko urtegia harkaitzari zerion bertsozko ur gardenez. Egia esan, *Menditik mundura* liburua kanpoan egin zuen, baina espetxetik ekarri zituen idazkiz osaturiko bilduma dela dio.

Kartzelatik itzuli zenean, jende asko zuen zain; guztiek erakarri nahiko zuten berenera eta batzuen eta besteen presioa sumatuko zuen ziur asko, batez ere politika arloan. Kulturen eta bertso-arloan itxaropen handiak jarriak ziren harenengan. Txapelketa nagusiaren aurreko urteetan asko ibili zen Euskal Herrian zehar eta bertso-saio hots handikoak eratu ziren, bera partaide eta protagonista zela; kasu batzuetan bi zati izaten zituzten jaialdiek: kantaldia eta bertso-saioa. Zurrunbilo nahasi horretan erabili zuten; ezetz esatea eta abiada handian zen tren horretatik jaisteaz ezonezkoa zen...

Euskal Herriko bi txapelak

Halako boladan denborak ihes egiten du erraz eta 1980ko txapelketa nagusia iritsi zen, Euskaltzaindiak eratzen zuen azkena. Xabier Amurizak hainbat berritasun agertu zituen txapelketa horretan: bakarreko lanetan ahapaldi-molde berriak, doinu berriak, metaforak, ordura arteko erreferentziak eta topikoak guztiz baztertu gabe, erreferentzia berriagoak, gaurkoagoak, jendeak bizi zituenak ekarri zituen, eta agerikoa, Euskal Herriko txapelketa nagusian euskara batua, euskara estandarra, erabiltzea. Hori eta ahots zoli distiratsu eta kantaera dotore harekin entzuleak zeharo bereganatu zituen. Ez guztiak, gero! Baziren lege zaharrean eta betiko moldeetan aingurak ezarrita eta sustraiak botata zeudenak. Xabierrek ze-



X. Amurizaren lehenengo saio "prakaduna", Lekeition, J. Arregi eta J. Mugartegi lagun dituela. 1970 inguruan

karren berritze hori ez zuten identifikatzen, ongi barneraturik zuten ideia finko harekin. Haien iritziz, hori ez zen berezkoa eta benetakoa; hori eskolakoa, badaezpadakoa zen. Askotan, begi bistakoa ikusi nahi eza gertatzen da. Ondarroako emakume batek janari gozo-gozoa prestatu ondoren, esaten omen zuen: “hau atxakixetan dauana endredo bila dabil”. Hemen ere gauza bera gerta daiteke: agerikoa dena ikusi edo aitortu nahi ez...

Euskal Herriko txapela irabazi zuen lehen aldiz eta zoriontsu zen, baina “endredo bila zebiltzanek” ez zioten baketan uzten. Hortik datorrela, esango nuke, autobiografia liburuari *ENAZ BANAZ* izenburua ezartzea.

Eta uste baino lehen iritsi zen 1982ko Euskal Herriko txapelketa nagusia ere. Hau dio berak: *Larogeta bikoa niretzat barriro erronka gogorra zen, ondo bainenkien baztarretan esaten ari zirela: “Aurten ikusiko diagu zer egiten duen horrek”*. Zer egiten duen? Bigarren txapela ere irabazi, horixe

egingo zuen, bere goi-maila berretsiz, bertsozale gehienen porzerako eta endredo bila ari ziren gutxi batzuen lotsarako.

Finalurrekoetan abiatu ziren aurreko finalekoak eta horiekin batera txapelduna. Bitartean izan ziren berarentzat batere atseginak ez ziren une batzuk. Esaterako, Idiazabalen saioa amaitzeko kartzelakoa falta zen soilik; Amuriza kantatzeko ordenan bigarren zen eta txanda iritsi zitzaionean kartzelatik atera eta oholtzarantz zihoanean, pilotaleku osoa isil-isilik: *Neure oin hotsa bakarrik entzuten neban eta belarrietako dunduri kolpekaria. Pilotalekuaren erdian oholtzarantz bartu nebanean, urkabera bideko abandonua begitandu jatan.* Finalerdietako bigarren saioa Durangon egokitu zitzaion; han Peñagarikanorekin kantatzeko gai bat eman zioten: ezagutzen ez zaituen emakume batek, kasu honetan Peñagarikanok, maite zaituela esanez, telefonoz deitzen dizu; Xabierrek telefonoz deitu zuena emagaldua balitz bezala interpretatu zuen gaia eta horren arabera kantatu zuen. Saio hura zela-eta emakume batzuen haserrea piztu zen eta Xabier bera ere damu zen gaia hala interpretatu izanagatik. Ez da harritzekoa halako zalantzak izatea bat-batean aritzean.

Buruz burukorako Jon Lopategi eta bera geratu ziren, biak saio bikaina egin ondoren. Buruz burukoan gorenera iritsi zirela esango nuke eta kartzelako lanean naufragoaren gaian Xabier Amurizaren bertsoak bikainak izan ziren eta amaiera batez ere distiratsu, erdiragarri eta indartsua.

Bertso jarriak

Bertso jarriena izan da hark bereziki eta gogotsu landu duen beste arloetako bat. Jendearengana iritsi ziren lehenengoetakoak, ez herrian asko zabaldu zirenak bestalde, goian aipaturiko *txepetxaren eta kukuarenak* izango ziren eta gutxi gorabehera garai berean jarri zituenak *GOGOR* diskorako; disko hau isilpekoa zen eta Jose Antonio Retolaza eta beste batzuk

arduratu ziren kudeatze eta zabaltzeaz. Gure artean “talo bal-tza” izena zen haren pasahitza. Geroago kartzelan zegoela handik isilpean atera ziren sorta batzuk gehiago zabalduko zi-ren, esaterako, *Euskal Herritik aparte; Bertso berriak horma zaharrei jarriak*. Hauek eta beste asko, nahiko ospetsu egin zirenak, *MENDITIK MUNDURA* liburuan argitaratu ziren musika eta guzti; haietako batzuk ahapaldi mota berriak dira eta musika ere berak konposatua dakarte; *Bertso berriagoak horma zaba-rragoei jarriak; Zamorako sugintza; Hegoatik Iparrera* (8 eta 7 silabakoak). Liburu honen bigarren partea, bertso jarriena, *Bertsolaritza* izeneko sortaz hasten da hamarreko handian; bertso ederrak, bertsolaritza zer den agertzen dutenak; doinua berak egina da, 1980ko finalean lehen aldiz txapela lortu zue-nean “Aita” gaia kantatuz erabili zuen doinu bera. Eta liburua Xalbadorri eskainiriko bertso zoragarri eta poetiko batzuekin amaitzen da: *Gau isileko bakarmortuan / ilargizko maindi-rea...* Beste ahapaldi bat honela hasten da: *Zure ahotsa oihan barneko / lur eta sustraiz egina...* Eta azkenik, Xalbadorren kristau fedea gogoratuz: *Beste munduko sinesmen finez / bots egin zenigun sarri...* Sail honetan sar daitezke kantarientzat eginiko hainbat koplak edo letra ere, diskoetan entzunik ospe-tsu egin direnak, beharbada, batzuk bertso jarrietan baino hobeki olerkietan sartzen direnak, esaterako, *Mendian gora haritza*, Imanolek kantatzen duena, eta *Lurra* izeneko poema ederra, X. Amurizaren hitzak eta M. Ducauren musika dituenak.

Bertso jarrien artean benetan aintzat hartzekoak dira hainbat lekutan kantatzeko prestatu zituenak. Hauek, Lopategi eta Az-pillaga ondoan zituela bat-batekoekin txandakatuz eta musika-riek lagundurik kantatu zituen toki askotan. *Laurehun herri, mila bertso berri* izenburuaz argitaratu zituen liburu batean.

Aipamen bat gutxienez merezi duela, uste dut, Algortako “Balendin Enbeita” sarira aurkeztu zuen “Agur Sagar beltze-ran” amodiozko sortak.



Hainbat obra

Esana dugu idazle oparoa eta sortzaile peto-petoa dela gure Xabier. Dagoeneko dozena-erdi eleberri baino gehiago argitaratu ditu. Inñaki Mendizabal kazetariak *Deian* egin zion elkarrizketan, beste gauza askoren artean, horretaz galdetzen dio. Arrakasta handirik ez duela izan literatura-kritikaren alde-tik dio, baina gero hau gaineratzen du: *Ni gustura nabil paper zuriaren aurrean, literaturan ez dut presio handirik sentitzen, bertsotan legez.*

Harrerarik hoberena izan dutenak, *ENAZ BANAZ* liburu autobiografikoaz gainera, bertsolaritzari buruzko lan didaktikoak izan direla esango nuke. Hor ditugu, esaterako, *HIZTEGI ERRIMATUA*; *HITZAREN KIROL NAZIONALA*; *ZU ERE BERTSOLARI*; *BIZKAIERAZ BERTSOTAN*; *BIZKAIKO BERTSOGINTZA III* eta *BIZKAIKO BERTSOGINTZA IV*.

Euskal prentsan argitaratzen zituen *Semaforo gorria* eta *Arrano beltza* ere irakurleek atseginez hartzen zituztenak dira.

Ipuin, pasadizo, kontakizun labur eta umorezkoak ere idatzi zituen, euskaltegietan hizkuntzaren praktitarako erabili direnak haietako asko. *MENDITIK MUNDURA* liburuaren lehen partean olerki libreak datoz. Hauek azpimarratu ditut: *Falta eta sobera*; *Zer diok oilar*; *Triste bago*.

Azken gogoetak

Idatzi ahala ihes egin didaten edo erdi esanik geratu zaizkidan ideia batzuk ezarriko ditut azken lerroetan.

Berritzailea izan zela esan dugu. Beti liluratu izan du ez lehenean gelditu zenak, mugimendu bizian berrituz zihoanak baizik. Gaztetan Bilboko zezen-plazan Bizkaiko finala entzuten lehen aldiz izan zenean, bertsolari bat ikusi zuen batez ere berritze bide horretan: *Lopategiren bertsokera deigarri egin jatan. Gauzak diferente eta apur bat txoketako moduan esaten ebazen. Ondo ulertzen jakon, ideiak argi adierazoten ebazen,*

bertsolaritzaren “misterioa” haren ahoan ia ulergarri (desmitifikatua, beraz) ikusten neban eta, erara zetorrenean, oso neure egiten neban berotasun bat somatzen jakon, batez be abertzaletasunezko puntadetan.

Berritze hori entzule gisa miretsi ez eze, berezko bertsolaritzaren mitoa hautsi nahi zuen bera goiko mailetara iristerakoan. Bertsogintza beste edozein diziplina bezala ikasi eta irakatsi egiten zela ongi frogaturik utzi zuen, bere bizitzako esperientziak argi erakusten baitzion hori. Horrela, helduen bertso-eskolen eragile eta maisu bihurtu zen. Mugimendu indartsu horren emaitza izan daiteke *Zu ere bertsolari* izeneko liburua.

Haren autobiografia liburua *ENAZ BANAZ* pixka bat aztertuz, bertsolaritzaren harra ume-umetatik sartua bazuen ere, gora-beherak izan zituela ohartzen gara; une batzuetan ez zen ari-tzen hain eroso batez ere bat-bateko saioetan; ez umetako ahalegin larri haietan soilik, ezta geroago eta txapeldun zenean ere. Uztapidek bertsolaritza ofizio zaila zela esaten omen zuen. “Etorria” esan ohi dela, baina bertsoak ez direla etortzen, ekarri egin behar direla, ederki kostata ekarri ere. Xabier Amurizak ere bertso-saioetan irabaziriko dirua kontatuz, hau esaten zien: *Polittek zarie, baia ez kosta bakoak, barrabanok!* Hori, autokritika eginez eta bertsolariak barrutik begiraturik hala izango da, baina bertsolari onek, eroso ari ez direnean ere, jendeak ez igartzeko eran eta itxuroso kantatzeko trebetasuna dute.

Luis Baraiazarra Txertudi